

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO UDALAREN 2019-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urriaren 7an Bilboko Udalaren eta bere tokiko 3 erakunde autonomoen, 2 enpresa erakunde publikoen, 7 sozietate publikoen ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldikoa.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du **Kontu Orokorra** osatzen duten erakunde guztien kontuei dagokienez; nahiz, Udalaren Diruzaintza geldikinari eragiten ez dioten zenbait kontabilitate-doikuntza azaleratu diren eta Aisialdirako eta Kulturarako Azkuna Zentroko ibilgetu ukiezinaren balioan akats bat.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019an ekitaldi horretarako ezarritako aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, zorraren helburu eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla**. Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du finantza-orekako egoeran daudela.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertzen du eta azpimarratu du sortu den **aurrezki garbiak** 2018 eta 2019ko ekitaldietan, batik bat, bide eman duela **kapital eragiketen defizitari** aurre egiteko eta Diruzaintza Geldikina areagotzeko. Bestalde, HKEEk azpimarratu du murriztu egin direla Udalkutxako sarrerak eta gehitu egin direla familientzako laguntzak, Bilbao Ekintza TEPEi eta Bilbao Kirolak sozietateari emandakoak, COVID-19aren ondorioak arintzeko.

Udalak eta gainerako erakundeek **zuzentasunez bete dute** beren jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege-araudia, eta unean uneko akatsak antzeman dira kontratazioan (bi kontratu luzatu dira horien epea gaindituz) eta langileen atalean (Bilbao Musika TEA, Aisialdirako eta Kulturarako Azkuna Zentroa eta BilbaoTIKek aldi baterako lan-kontratuak hautaketa-prozesurik gabeko mugagabe bihurtu dituzte, eta Bilbao Ekintzak, Bilbao Zerbitzuak, Bilbao Kirolak, Arriaga Antzokia eta BilbaoTIK entitateek alde zuzeneko erretiro-sariak PFEZan dagokion atxikipena egin gabe ordaindu dituzte).